

25-26 IKASTURTEKO IGEENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN LABURPENA

Deialdia eta Tramitazioa:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2026/ampas/web01-tramite/eu/>

Eskabideak: 2026ko irailaren 1etik - urriaren 1era arte.

Diruz lagundutako gastuak: 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra arte

▪ Diruz lagundutako gastuak

A) Ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jardueren gastuetarako. Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da. Jarduera horien gastuak hiru ataletako kopuru osoaren % 50 edo gehiago izan beharko dira.

- ✚ Euskara edo beste hizkuntza batzuk ikasteko hizkuntza-ikastaroak/hizkuntza-tailerrak.
- ✚ Gaitasun digitalak eskuratzeko teknologia-ikastaroak/teknologia-tailerrak; informatikako eta digitalizazioko ikastaroak.
- ✚ Prestakuntza artistikoko tailerrak, oro har, hala nola eskulangintzakoak, marrazketakoak, pinturakoak, eskulturakoak, musika-hezkuntzakoak, antzerkikoak, argazkigintzakoak, dantzakoak, etab.
- ✚ Irakurketa sustatzeko tailerrak, bai eta literatura-solasaldiak egitekoak eta eskolako aldizkariak/egunkariak egitekoak ere.
- ✚ Sukaldaritza eta gozogintzako ikastaroak/tailerrak. Nutrizioari eta elikadurari buruzko ikastaroak.
- ✚ Osasunarekin lotutako ikastaroak/tailerrak/hitzaldiak. Gai hauei buruzko prestakuntza: osasun mentala, egonkortasun emozionala, antsietatea, autoestimua, elikadura-nahasmenduak, nola kudeatu dolua senideak galtzeagatik eta nola egin aurre banantze edo dibortzio bati. Lehen sorospeneko ikastaroak.
- ✚ Sexualitatearekin lotutako hitzaldiak/programak/ikastaroak. Sexu eta genero-hezkuntzari buruzko prestakuntza: Sexu-aniztasuna, sexu-identitatea eta -orientazioa, berdintasuna sexu-harremanak eta sare sozialak.
- ✚ Bullyingaren edo eskola-jazarpenaren aurrean orientatzeko eta jarduteko hitzaldiak/programak.
- ✚ Familia-gatazkei aurre egiteko moduari buruzko hitzaldiak/programak; agintea erabiltzeari nerabezaroari, sare sozialen erabilerari eta abarri buruzko prestakuntza.
- ✚ Kirol-jarduerari buruzko ikastaroak/tailerrak: Kirol mota guztiei buruzko prestakuntza, oro har; horrekin batera, ikastetxetik kanpo kirol-jarduerak egiteko ikastaroak/irteerak, hala nola eskia, patinajea, piraguismoa, mendi-ibiliak, igeriketa, etab.
- ✚ Kultura- eta kirol-jardueretako monitoreak kontratatzea.
- ✚ Naturarekin lotutako ikastaroak/tailerrak: Prestakuntza baratzezaintzan eta lorezaintzan, tokiko fauna eta flora ezagutzeko irteerak eta txangoak.
- ✚ Diruz lagundu ahal izango dira, halaber, aipatutako ikastaroak, tailerrak eta hitzaldiak antolatzekeo gastuak: hizlarien garraio dietak, ostatua eta mantenua, dagokion jarduera egiteko lokalen alokairua eta prestakuntza-jarduerarekin lotutako materialen erosketak.
- ✚ Garraio-gastuak; museoetan, antzerkian, zineman eta erakusketetan sartzeko sarrerak, eta kultura- eta kirol txangoak egiteko gastuak.

25-26 IKASTURTEKO IGEENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN LABURPENA

B) Funtzionatzeko behar diren azpiegitura-gastuak. Jarduera horien kostuaren % 100 ordainduko da.

- ✚ BIGE Federazioaren kuota.
- ✚ Langileen nomina (IGEa kudeatzeko kontratatutako langileak).
- ✚ Argia, ura eta berokuntza hornitzeko gastuak, baita lokalak alokatzeko gastuak ere.
- ✚ Telefoniako eta Interneteko gastuak.
- ✚ Bulegoko materiala, material informatikoa eta abar erosteko gastuak.
- ✚ Urtekariak, orlak eta abar ekoizteko eta inprimatzeko gastuak.
- ✚ Informatika-programen software-lizentziak.
- ✚ Publizitate-gastuak.
- ✚ Argitalpenen harpidetzak.
- ✚ Azpiegituren mantentze-lanetarako eta funtzionamendurako gastuak

C) Jarduera osagarrietarako gastuak. Jarduera horien kostuaren % 50 ordainduko da

- ✚ Ikasturte-amaierako ospakizunak/jaiak, graduaziokoak, Gabonetakoak, inauterietakoak, etab.
- ✚ Horrelako ospakizunetarako material-gastuak.
- ✚ Ikasturte-amaierako opariak ikasleentzat.
- ✚ Prestakuntzakoak ez diren jardueretarako garraio- eta sarrera-gastuak.
- ✚ Lokalak alokatzeko eta jarduera osagarrietarako materialak erosteko gastuak.
- ✚ Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzendutako
- ✚ Prestakuntzakoak ez diren jarduera osagarrietarako gastuak.

■ Gogoratu

Diruz lagundu daitezkeen gastuen guztizkoak (2A eranskinaren amaieran agertzen da) iaz jasotako zenbatekoa baino handiagoa izan behar duela.

Prestakuntzaren gastuak aurrekontuaren ehunekoa % 50etik gorakoa izan behar dela.

■ Aurkezteko dokumentazioa

- Memoria Ekonomikoa eta Fakturen Zerrenda (lehen-dirulaguntza lerroa) BERRIA!
- Jardueren memoria: egin diren jardueren azalpen laburra. Azalpen horretan, zehaztu egin beharko da, batetik, zer neurri hartu diren inklusioaren eta hezkidetzaren ikuspegia bermatzeko, eta, bestetik, nola bideratu diren jarduerak gutxienez alderdi hauetako bat betetzera: ikasleen osasun emozionala hobetzea; bizikidetzaren positiboa; jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan nahiz aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzea; hezkuntza-komunitateko pertsona guztien konpetentzia digitala hobetzea, eta eskola-komunitateko kide guztiak motibatzea. Izan ere, ikasleen eskola-arrakasta eta arrakasta pertsonala lortzea da helburu komuna. Programatutako helburuak zenbateraino lortu diren azaltzen duen informazioa.
- Fakturak eta ordainagiriak. IGEak kontratatutako langileen nominen kasuan, kontratuak edo Gizarte Segurantzako altaren ziurtagiria erantsi behar dira.